

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza <sup>info</sup>

Ostirala, 2012ko ekainaren 15a. IX. urtea. 2.368. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)



## Saharako haurrak ekainak 25 eta 26 artean iritsiko dira

22 neska-mutil etorriko dira Tolosaldea eta Leitzaldeara Oporrak Bakean-en barruan **07**

## Hodei Truken emanaldi berezia, 25. urteurrena ospatzeko

Abesbatzak kontzertua prestatu du etzirako; kide ohiak gonbidatu dituzte parte hartzera **03**

## Askotariko iritziak laikotasunari buruz

Tolosako San Joan jaietako prozesioan udalbatza elizatik ordeztu eta udalbatza ateratzea «begirune osoz» hartzen duela esan du Jesus Mari Arrieta parrokoak **02**

→ **Parte hartze handia, Sari Nagusia.** Igandean Villabona-Zizurkilgo neska txirrindularien VIII. Sari Nagusia izango da. 09:30ean hasiko da lasterketa eta antolatzaileek 150 bat txirrindulari espero dituzte, azken urteetako parte hartzerik handiena. Banatuko dituzten sariak (irudian) Zizurkilgo Maria Altunak egin ditu. **06**

## Sanjoanetako azokak eta herri musikak girotuko dute Tolosa, bihar

Hainbat ekitaldi izango dira San Joan jaien aurreko asteburuan: kirola, antzerkia, dantza, sagardo dastatzea, kontzertuak... **05**

**FUNERARIA VASCONGADA EHOZKETAK**  
902 402 900  
[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)

TOLOSA  
Kondeko Añaga, 5  
943 - 67 00 40  
VILLABONA  
Larrea Polg. 34 - 1  
943 - 69 48 73

Meritz Pazoselkua, 95  
28008 Donostia  
943 310 873  
[www.ceinpro.es](http://www.ceinpro.es)



**ceinpro**

### TITULAZIO OFIZIALAK

01. AURREINPRIMAKETA DIGITALEAN TEKNIKARIA GOI MAILAKO
02. DISEINU ETA PRODUKZIO EDITORIALEAN GOI TEKNIKARIA GOI MAILAKO
03. GOI TEKNIKARIA 3D ANIMAZIOAN, JOLABAK ETA INGURUNE INTERAKTIBO ADITUA GOI MAILAKO



Tradizioz beteriko jaiak dira Tolosako sanjoanak, ohitura pagano nahiz erlijiozkoekin. Aurten, lehenengoz, Tolosako Udalak laikotasunaren aldeko apustua egin du, eta udalbatza udaletxetik aterako da prozesioan.

# Bi tradizioaren uztartzea jaietan

## Itzea Urkizu

Urteko gaurik motzena omen da San Joan bezperakoa. Suaren gainean salto egin, eta urte osoko izpiritu txarrak atzean uztearena jatorri paganoa duen antzina-antzinako tradizioa da, eta Euskal Herrian bereziki sustraitutakoa.

Udaren etorreraren berri ematen duen ospakizunak, Erdi Aroan hartu zuen San Joan bataiatzailearen izena, eta orduz geroztik tradizio paganoek nahiz erlijiozkoek elkarrekin egin izan dute solstizio berrirantzako bidea.

Ospakizun hau berezia da tolosarrentzat. Ekainaren 24an, lizar hostoz jantzitako kaleek, antzinako sineste haiek gogora ekartzen dituzte goizean goizetik, Alde Zaharreko kaleetan. Eguerdiko kanpai hotsek biltzen dute, ordea, jende gehien festa honen inguruan. Santa Maria plazak, eskopetariaren pauso azkarrek, erraldoien soineko luzeek, prozesioako irudiek, musika bandak eta bordondantzarien zintzarri biziek, San Joan jaietako unerik berezietakoa bat osatzen dute.

Aurten, lehenengoz, Tolosako Udalak laikotasunerantzako pauso bat eman du, azken osoko bilkuran onartutako mozio baten bidez. Modu honetara, udalak erakunde gisa, «izaera zibileko ekitaldiak edo/eta ospakizunak besterik ez ditu sustatuko, eta haietan besterik ez du parte hartuko».

«Sinesmen eta etika aniztasunari errespetua» izatearen garrantzia nabarmendu du Bilduk mozio honen oinarrian: «Laikotasuna demokratizatik bereizi ezin den printzipioa da». Bide horretan, herritar guztien arteko oreka bilatzea da beren helburua: «Oreka bilatzea da kontua. Oreka, Tolosako herritar guztiek duten berdintasun eskubidearen eta erlijio



San Joan eguneko prozesioa, 2010ean, elizatik ateratzen. I. TERRADILLOS

askatasunaren artean», dio Bilduko aurkeztutako mozioak.

Ibai Iriarte alkateak, «udalak sinesmen guztiak errespetatu» behar dituela uste du, eta horregatik laikoak izan behar duela: «Azken urteotan, kultura aniztasuna gero eta handiagoa da Tolosan, eta udalak denak errespetatu behar ditu».

Horrela beraz, Bilduko eta Aralar larko udal ordezkarien aldeko bozkek hala erabakita, datorren ekainaren 24an udalbatza ez da San Joan eguneko elizkizunetara sartuko. Dena den, Tolosako alkateak argi utzi nahi izan du, «zinegotziek hiritar moduan eskubide osoa» izango dutela mezara sartzeko edo ez sartzeko.

Ekainaren 24ko ospakizunetan, aldaketa bakarria ekarriko du, honenbestez, Tolosako Udalen erabakiak: udalbatza udalbatxetik irtengo da, bai goizeko prozesioan, baita arratsaldean, Arrameleko San Joan baselizara

bidean ere. «Kalean denok batera joango gara, herritar guztion festa baita», azaldu du Ibai Iriartek.

### Askotariko iritziak

Bilduko udal taldeak aurkeztutako mozioak, aldeko nahiz aurkako iritziak sortu zituen osoko bilkuran bertan.

EAJ-PNVko zinegotziek, beren aldetik, Bilduren erabakiaren aurkako jarrera hartu du: «Bildu taldeak laikotasunaren izenean egiten duen aldarriak ez du funtsik, eta kontraesankorra da udalako ordezkariak ospakizun erlijioetatik aldentzeko arrazoibideetan».

Bide beretik, jeltzaleen ustez «herri erakundeek ezin dute sinesmenen fede-bizitzaren dimentsio sozialaren baztertzea eragin, erlijioaren izaera arlo pribatura mugatuz». Honek guztiak, «ezjakintasun handia» adierazten duela nabarmendu du EAJ-PNVko udal taldeek, eta «kultura eza» ere bai.

Jeltzaleak bat etorri dira Bil-

duk aurkeztutako mozioarekin, aniztasuna eta demokrazia defendatzeari dagokionez; «gizarte elkartean eta herri ordezkariaren arteko harreman normal eta sanoak» defendatu dituzte. Harreman «normal» horiek, ordea, beste ikuspuntu batetik begiratzen dituzte bi udal taldeek: «Normala

### EAJ-PNVko udal taldearen ustez «kontraesankorra» da Bilduren proposamena

### Arrieta parrokoak «begirunez» errespetatu du erabakia

da, gure iritziz, Tolosako herriaren errotuta eta bizirik dauden adierazpenetan esku hartzea udal ordezkari gisa. Bai ospakizun edo ekitaldi zibiletan, bai erlijiozkoetan, eta horrek ez du udala konfesional bihurtzen».

Finean, beraz, jeltzaleen ustez «aurreiritziz eta sektakeriaz jositako proposamena» da Bildurena. Horrenbestez, «konplexurik gabe» erlijio ekitaldietara joateko deia egin dute, eurak ere joango direla argi utziz: «Udal honek hori baino kategoria gehiago behar du».

Auzi honetan, beste hamaika eragilerekin batera, elizaren beraren iritzia erabakiorra izan da, San Joan eguneko ospakizunetan gerta zitezkeen aldaketari begira.

Tolosako parrokoa da Jesus Mari Arrieta. Udal ordezkariaren bizpahiru bilera egin ditu mozioaren onartzeak San Joan jaietari begira sor zitezkeen aldaketak medio, eta argi azaldu du bere iritzia: «Niri ondo iruditzen zait hartu duten erabakia, eta begirune osoz hartzen dut».

Bide beretik, ordea, San Joan eguneko prozesioak festaren bidean elkartzen dituela ere argi ikusten du: «Batetik, jaiaren ezaugarri beteak dira goizeko ekitaldiak, eta herriko hainbat eragilek parte hartzen dute: txistulariek, bordondantzariak, eskopetariak... Bestetik, ordea, santurik gabe ez legoke prozesiorik, eta absurdua litzateke batak bestearekin duen zerikusia kontuan ez hartzea».

Horrela beraz, Arrietak begi onez ikusten du, ekainaren 24an udalbatza udaletxetik irtetea, eta zinegotzi bakoitzak, herritar moduan, bere erabakia hartzea: «Elizako ateak zabalik daude edonorentzat, baina ezin da inor behartu elizara sartzera».



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Iragarki laburrak

### ALOKAGAI

■ **Apartamentua.** Jacan eta Peñiscolan apartamentuak alokagai. Interesa dutenek, dei dezatela 635 73 70 43 telefono zenbakira.

### IKASTAROA

■ **Tailer askeak.** Sormensena

tailer askeak izango dira Leitzan, udan: 6 urtetik gorako gaztetxoentzat. Uztailean, 1, 2, 3 edo 4 egun, asteleheneetik ostegunera. Egunean 2 ordu: 10:30etik 12:30era. Izena emateko azken eguna, ekainaren 15a. [www.sormensena.blogspot.com](http://www.sormensena.blogspot.com).

# Kantuaren gustua eta plazerra bizituz



Hodei Truk abesbatzako kideek Zorroaga fundazioak antolatutako abesbatza zikloan parte hartu zuten, martxoan. I.G.L.

Tolosako Hodei Truk abesbatzaren 25. urteurrena da aurten eta emanaldi berezia egingo dute, etzi

**Imanol Garcia Landa** Tolosa

Aurten 25 urte bete ditu Hodei Truk abesbatzak eta urteurrena ospatzeko kontzertua emango du, etzi, Tolosako Berdura plazan, 19:00etan. Ondoa izango ditu bere familiako abesbatzak: Hodeiertz, Hodei Truk Hirukide eta Hodei. David Azurza zuzendariak azaldu duenez, urte hauetan Hodei Trukek beste izen batzuk izan ditu, Hodeiertz Txiki eta Xun Xume, eta abesbatza guzti horietako kideei gonbita luzatu diete kontzertuan parte hartzeko. «Azken hiru abestiak denok batera kantutako ditugu», esan du Azurzak.

Hodeiertz abesbatzako lau ki-

dek jarri zuten martxan orain 25 urte Hodeiertz Txiki abesbatza. Hortik gutxira David Azurzak hartu zuen zuzendaritza eta gaur egun ere berak jarraitzen du. Haur abesbatza izenez aldatzen joan da eta egun Hodei Truk izena du. Hodeiertz abesbatzaren harrobia da, eta Azurzak azaldu duenez, taldearen helburua «kantuaren gustua eta plazerra zabaltzea» da.

Haur abesbatza bat zuzentzea helduenarekin alderatuta, antolakuntza aldetik lan gehiago eskatzen duela dio zuzendariak. Bestalde, bere meritua du hainbeste urtez abesbatza mantentzeko. «Ohikoena haur abesbatzek hamar urte inguruko zikloak izatea da, eta horren ondoren abesbatza desagetea», dio Azurzak.

Urte hauetan guztietan hainbat ekimen eta kontzertu eman dituzte. «Beti saiatu gara irteerak eta elkartrukeak egiten, eta urtero zerbait berezia egiten saiatzen gara», esan du zuzendariak. Bar-

tzelonan, Torreveijan lau edo bost urtez izan dira, Ciudad Realera ere joan ziren ia...

Diskoak ere grabatu dituzte Hodei Truk abesbatzakoek. Aurten *Altzoko Haundia*, txikien opera obra grabatu dute. Aurrera begira, urrian bi emanaldi izango dituzte. Batetik, Tolosako Abesbatza Lehiaketaren aurretik izaten den topaketan parte hartuko dute. Bestetik, Durangon izango dira, txistularien alarde batean koru gonbidatu gisa parte hartuko dute, eta zerbait obra estreinatuko dituzte, tartean Azurzak berak egindako bat.

## Urte lanpetua

Urteurrena izaki, aurten ez dira geldirik egon Hodei Trukekoak. Zorroaga fundazioak antolatutako abesbatza zikloan parte hartu

zuten. Torreveijan ere parte hartu dute 18. Habaneren Nazioarteko Lehiaketan. Bestalde, «lan handia» suposatu duen *Altzoko Haundia*, txikien opera obra grabatu dute.

Aurrera begira, urrian bi emanaldi izango dituzte. Batetik, Tolosako Abesbatza Lehiaketaren aurretik izaten den topaketan parte hartuko dute. Bestetik, Durangon izango dira, txistularien alarde batean koru gonbidatu gisa parte hartuko dute, eta zerbait obra estreinatuko dituzte, tartean Azurzak berak egindako bat.

Horrez gain, urtea bukatu baino lehen, *Hurkus errementeria* obra Tolosan interpretatzeko asmoa dute. Obra horren musika Azurzak konposatu du eta testua Iturralde idatzi du.

Oraingoan, igandeko kontzertua dute aurretik eta 25 urte hauetan abesbatzako kide izan direnak bildu nahi dituzte. Emanaldiko azken partean abestu nahi dute-

## Hägerstens Chamber Choir suediarra eta Hodeiertz, kontzertuan

Emanaldia bihar izango da, 20:00etan, Hirukide Jesuitin ikastetxeko elizan; zenbait abesti batera kantatuko dituzte

**I. Garcia Landa** Tolosa

Hodeiertz Abesbatzak Hägerstens Chamber Choir abesbatza suediarrekin batera kontzertua eskainiko dute Hirukide Jesuitin ikastetxeko elizan, bihar, 20:00etan. Kerstin Börjeson zuzendariak sortu zuen 1995ean sona handia duen abesbatza suediarra. Abesbatza horrek kontzertu asko ematen ditu Suedia barnean eta baita bere herrialdeetik kanpo ere. Hägerstens Chamber Choir abesbatzak disko ugari grabatu ditu eta askotan Suedia-ko irrati publikoaren laguntzaila izan da.

Abesbatza suediarren egitaraua iparraldeko musikaz beteta dago. Bere aldetik, Hodeiertz abesbatzaren egitarauan gauroko musika izango da nagusi. Abesbatza bakoitzak bere emanaldia bukatu ondoren, elkartu eta lau obra eskandinaviar eskainiko dituzte.

nek 649701251 telefono zenbakira deitu dezakete. Kontzertuaren ondoren askaria egingo dute talde guztietako partaideek.

## Irudia ◊ Altzo



## KONPOSTA EGITEKO IKASTAROA

Joan den larunbatean, Altzoko Udak antolatuta, *Altzon ere zaborra sortzen da* izenburupean ikastaro praktiko bat eman zen konposta nola egiten den erakusteko. Bi aditu izan ziren horretan, Imanol Azpiroz eta Ainhoa Arroizpe (argazkian). Zabotegira bidaltzen den zaborra gutxitzeko helburuarekin herritar askok konpostagailua jarri du, eta hori jasotzerakoan Mankomunitateak emandako ikastaroarekin eta udalak antolatutakoarekin konposta egiteko moduan izango dira. HITZA

## Et Incarnatus orkestrak udari ongi etorria emango dio Urkizun

Azken urteetan bezala, udako solstizioa dela-eta, Iraolako zuloan emango du kontzertua hilaren 19an

**I. Garcia Landa** Tolosa

Beste behin, eta aurten hamahirugarrena da, Et Incarnatus orkestrak udako solstizioa dela-eta naturan kontzertua emango du. Iazko toki berean izango da, Tolosako Urkizu auzoan, Iraolako zu-

loa izeneko lekuan (telekomunikazio antenaren pean). «Benetan txokoak merezi duelakoan gauden», diote Et Incarnatus orkestrakoek. «Mendikuteraren magaleko belaze eta pagadiez inguratutik izango gara».

Emanaldia hilaren 19an, astearte, izango da, 19:30etik aurrera. Eguraldia txarra bada, Urkizuko ermitan emango dute kontzertua. Orkestratik azaldu dutenez, «ohikoa den bezala, amaieran izango da tripa berdintzeko zer jan eta edana bertarantzen direnzentzat».



**Eneritz Maiz** Altzo

**L**anda eremuan kokaturiko herri txikia da Altzo. Lasaia bezain ederra. Bi lauzo nagusitan banatzen da herria: Altzo Azpi eta Altzo Muino. Ibilaldi honekin, ordea, Altzoren muinoa ezagutuko da. Altzotar gehienak bertan bizi dira.

Ibilaldia Altzoko autobus geltokitik hasiko da. Elizarantz egingo ditu lehen pausuak ibiltariak, eta errepidez egingo den ibilaldiari hasiera emango zaio. Txaramarako bidea hartuko du, eta errepide ertzetik paisaiak eta naturak eskaintzen duenaz gozatzeko aukera dago. Metro gutxi batzuetara, errepidearen bi aldetara zuhaitzak izango ditu lagun ibiltariak. Landa eremua bete-betean, belardiak, baratzeak, belar bolak, baserriak, abereak,... izango dira bidelagunak.

Bidean, baserri handi-handi batera joango zaio begirada paseoa doanari. Zuaznabar Haundi baserria da, eta 2006. urteaz geroztik, monumentu izendatua dago. Landa eremuan tartekatuta beste hainbat baserri edota etxe ere ikus daitezke. Baita hainbat menditontor ere.

Bidegurutzera iritsiko da ibiltaria, baina aurrera jarraituko du ezker eta eskuineko bideak albo batera utzita. Ordekan aurrera egin, eta metro gutxira bigarren bidegurutzera dago. Alegia edo Tolosara joateko seinaleak begi bistan izanik, Tolosarako bidea hartu beharko da metro gutxi aurrera egiteko. Baserri eder batekin joan-etorria izango da. Palmondoa duen Sasiain baserri parean, berriz ere, Altzora begira jarriko da ibiltaria, itzulia etortitako bidetik egiteko.

Trafiko gutxiko errepidea da. Espresuki joan behar da Altzora, eta bidean gurutzatuko diren auto gehienak bertako bizilagunenak izango dira. Malda txiki-ren bat edo beste bada, baina edonork egiteko modukoa da. Bate-tik besterako bueltan, lau kilometro izango ditu egiteko.

Herri sarrerara iristean, lehen etxeak pasata, parez pare Jasokundeko Ama Birjinaren eliza eta udaletxea daude. Bien artean, plaza ederra du Altzok. Zabala bezain lasaia. Haurrentzako parke-



Ibilbidean zehar Altzo Muinoko ikuspegiak gozatu daitezke; eskuinetara Zuaznabar Haundi baserria ikus daitezke. E.MAIZ

Altzo herriaren muinoan barrena egingo den ibilaldia lasai bezain erraza da egiteko; naturaz eta paisaiaz gozatzeaz gain, Altzoko herriak egun pasa egiteko aukera asko eskaintzen ditu.

# Altzoren muinoko patxada



Ibilbidearen bi ertzak: Santa Barbara basiliza eta Sasiain baserria. E.MAIZ

ak ditu alboetan, eta baita elizaren orma aprobetxatuz eginiko ezker paretik gabeko pilotalekua ere. Eguraldi ona eginez gero, txiki-eren gozamenerako guztia eskaintzen duen herria da. Helduak, aldiz, eskaintzen duen isiltasuna eta patxada eskertuko dituzte.

Hala ere, ibilbidea ez da hemen bukatzen. Altzoren muinoa luzea da, eta Santa Barbara baselizarainoko bidea egiteko dago. Bidea laua da erabat, eta bi alboetara, azken urteetan egindako etxebizitzak daude. Etxeak bukatzearekin batera pilotalekua dago, eta honek parez pare du baseliza. Baita, Altzoko txiki-eren eskola txikia ere. Hiru eraikinen erdian, ordea, zaindari ezin hobea dago.

Migel Joakin Eleizegi izena ez da ezaguna izango askorentzat, baina Altzoko Erraldoia esanez gero, inor gutxiri egingo zaio arrotz. Altzoz egun egin zuen hezur haragizko gizona, 'Erraldoi Euskalduna' izenarekin aurkeztua izan zen Europako hainbat hiritan. Bere omenez, bi metro eta 42 zentimetroko altuera zuen gizonari eginiko harrizko eskultura dago jarrita.

Autobus geltokirako bidea baino ez da falta ibilbide eder hau bukatzeko.



Udaletxea eta herriko plaza. E.MAIZ



**DATUAK**

- **Luzera.** 4.000 metro.
- **Ezaugarriak.** Bi joan-etorri.
- **Hurbilketa.** Aldiriko Renfe trenean Tolosara edo Alegiara eta gero autobusean.
- **Hasiera-bukaera.** Altzoko autobus geltokian.
- **Zailtasun maila.** Malda errazak ditu ibilbide osoak.
- **Azalpenak.** Altzoren muinoan egiten den paseoa da.
- **Interesguneak.** Jasokundeko Ama Birjinaren eliza, Santa Barbara basiliza, Erraldoiaren eskultura eta naturgunea.

## LEABURUKO OSTATUA

UDAKO ORDUTEGIA (Egunero 11:00etatik 24:00etara)

- Ogitartekoak, plater konbinatuak, ... asteko gau guztietan.
- Eguneko menua 9 eurotan
- Asteburuko menua 18 eurotan

**Etorri eta gozatu. 943 674 277**



**OSTATUA**

# Ganadua San Frantzisko pasealekuan izango da San Joan jaietako azoka berezian

Datorren asteko sanjoanei begira, ekitaldi eta jardueraz betetako asteburua izango da datorrena

## Itzea Urkizu

San Joan jaien atarian, urteroko azokak izango du berrikuntzarik, bihar, Tolosan: ganadu azoka San Frantzisko pasealekuan izango da, eta lau arrazatako 32 buru jarriko dituzte erakusgai: blonda, limousina, txarolesa eta pirenaika.

Honez gain, goiz osoan zehar Euskal Herri osotik etorritako ekoizleak izango dira Trianguloa plazan, Lur Lan elkartearen laguntzaz.

Salmenta postuez gain, ordea, erosketak egin ondoren izango da jana eta edanari buruz zerbaitez gehiago ikasteko aukera ere. 11:30ean, gazta eta sagardo dastatzeak egingo dituzte, eta bi adituk azalpenak emango dituzte.

Aipatzekoa da, azoka bereziaz

gain, larunbateroko Zerkausiko, Berdura plazako nahiz Euskal Herria plazako postuak ere beren betiko lekuan izango direla.

Era berean, aipamena merezi du, Herri Musika Tresnen Topaketa egingo dutela, bihar, egun guztian zehar. GiroArte taldeak antolatu du eta eskualdeko musikariez gain, Barakaldotik albokari eta Baionatik dultzainero talde bana izango dira, izan ere, GiroArte taldeak aspaldidanik du harremana berarekin. 11:00etan hasiko dira kalejira egiten Alde Zaharretik. Hainbat instrumentu entzuteko aukera izango da: trikitixa, alboka, txalaparta, dultzai-

na eta biolina. Azken hau Loatzo musika eskolako ikasleek joko dute. Instrumentu bakoitza jotzen duten musikariek kalejira egingo dute beren aldetik, eta tarteak elkartuko dira denen artean zenbait pieza jotzeko. Une horretan, Oinkari dantza taldeko bi kide ere dantzan ariko dira. Goizekoa bukatu ondoren bazkalduta eta gero, arratsaldean, 18:00etatik 20:00etara, berriro ariko dira kalejiran.

Asteburu biribiltzeko, eta jaietako begira, musika emanaldi gehiago, bakarrizketak, kirol jarduerak eta urteroko Sagardo Eguna izango dira datozten egunetan.



laz ere, jende asko bildu zen azoka berezian. I. GARCIA LANDA

## ↓ Asteburuko jarduerak

### EKAINAK 15, OSTIRALA

■ **20:30.** Kultur etxeko antzerki taldeak *Lysistrata* antzerki obra klasikoak eskainiko du Leidor aretoan.

### EKAINAK 16, LARUNBATA

■ **Egun osoan zehar.** Herri Musika Tresnen Topaketa. Dultzaineroak, txalapartariak, albokariak, bibolin joleak, trikitilariak eta dantzariak kalez kale ibiliko dira, herria doinuaz alaitzen. Graffiti erakusketa, herrian zehar. Herriko sei jubilatutako zaharrenei omenaldia egingo dio Harizpe Elkarteak.

■ **09:00.** Trianguloan Euskal Herriko produktoreekin sanjoanetako aparteko azoka. Gazta eta sagardo dastatzeak. Ganadua azoka.

■ **10:00.** Usabal kiroldegian, igeriketa probak, XLIII. San Joan saria.

■ **18:00.** Usabal kiroldegian, San Joan eskubaloi sariko finalak.

■ **19:00.** Berdura plazan, Sagardo Eguna. Antolatzailea, Bata-suna Elkarteak.

■ **19:30.** Leo Harlemen bakarrizketak saioa, Leidorren.

■ **20:00.** Jesuitinetako elizan Hodeiertz abesbatzaren kontzertua.

■ **22:00.** Leo Harlemen bakarrizketak saioa Leidorren.

### EKAINAK 17, IGANDEA

■ **10:00.** Xake-Jokoa Tolosako Xake Elkarteak antolatuta: XX-XIX. Nazioarteko Lehiaketa taldekoa, XXXVI. Enrique Pineda Memoriala.

■ **10:00.** Futbola Usabalen, Elkartasun Txapelketa.

■ **11:30.** Iurreamendin, Euskal Herriko IV. Bakarkako Segaligaxka.

■ **12:00.** Dantza tailerraren emanaldia, Leidorren.

■ **19:00.** Hodei Truken kontzertua, Berdura plazan.

## Gutuna

### Puntaren puntan, Europan

Aurreko astean aurkeztu zuen Diputazioak Gipuzkoako hondakin kudeaketarako Plangintza. Goi mailako jakitunek egindako plangintza da, Europan aitzindariak direnak. Orain arteko plangintza gaurko egoerara egokitu dute goi-teknikari hauek eta gure ustez, onura asko ekarriko dituen plangintza da:

-Gaikako bilketa sustatzen du eta helburu argiak jartzen ditu: %60a 2016rako eta %75a 2020rako.

-Plangintza malguta da, gaikako bilketa handitzen den neurrian egokituko baitira azpiegiturak ere.

-Kudeaketa banatu egiten du beharren arabera, hondakina sortzen den tokira hurbiltzen baita.

-Zabortegei aruntak 2014an itxiko dira, aurretratamendurik ez duen zaborra hartzen duten zabortegeiak alegia.

-Askoz ere merkeagoa da, 200 milioi euro merkeagoa.

-120 lanpostu zuzen sortuko ditu, eta askoz gehiago, zeharkak.

-Plangintza honekin ez da errauskailurik behar.

Honengatik guztiagatik, Gipuzkoa Europa mailan puntaren puntan jarriko da hondakin kudeaketa moderno eta aurrerakoian, Zero Zabor helburu hartuta.

EAJ-PNV asteburu honetan, plataforma baten bidez, errauskailuaren aldeko sinadurak biltzen aritu da. Koherentzia hutsagatik, errauskailua Tolosan kokatzea proposatzen dutela uste dugu, izan ere, norberarentzat nahi ez dena besteentzat eskatzea ez baita txukuna inondik inora.

Non eraiki nahi du EAJ-PNVk errauskailua, Apattan?, Amaratzen?, San Estebanen, akaso? Tolosarro jakiteko eskubidea dugu.

Gure iritzia argia da, ez dugu errauskailurik nahi, ez Tolosan, ez Zubietan, ez beste inon.

Errauskailuak arriskutsuak dira gure osasunarentzat eta inguru-

rumenarentzat, Gipuzkoako Medikuen Kolegioak antolatutako *Osasuna eta hondakin errauskea* konferentziak ondorioztatu zuen bezala.

Diputazioaren 2008ko plangintzak urtean 260.000 tona hondakin erretzea aurreikusten zuen. Errauskailuak kopuru hori behar du martxan dagoen denbora guztian.

Zer gertatuko da gaikako bilketa handitutakoa? Gaika biltzea al da benetan EAJ-PNVren helburua? Nola demontre dira osagarriak birziklatzea eta errauskailua?

Europak 2020an debekatu egingo du berrerabili eta birziklatu daitekeen hondakina erretzea. Orduan, kanpotik ekarriko al dugu zaborra errauskailuari jaten emateko?

Logikoa al da 400 milioi euro gastatzea hemendik 8 urtera errauskailua ixteko? Zein interes ezkutu dauka hau defendatzen duenak?

Ez, EAJ-PNVko andre eta gizonak, ez da errauskailurik behar. Ez duzue eraikiko zuten patrikak betetzeko basterik balio ez duen errauskailua. Herri honek ez dizue utziko. Plangintza egokitu berri honek betirako ixten dio errauskailuari atea eta gu oso pozik gaude horrexegatik.

Alemania, Herberereak, Danimarka... dira Europa mailan aldatuta haur bideratzen liderrak. Hondakinak lehengai moduan tratatzeko helburua dute, ez erretzeko zabor moduan eta honek ekonomian eragin ikaragarri ona du, lehengaietan paltal baitabil euroaren lurraldea.

Aldaketa ekonomikoa eta teknologikoa handien garai honetan, Gipuzkoa Europan puntaren puntan jarriko da plangintza berrituarekin.

Ez dugu tren hau galdu behar. Plangintza egin duen jakitun batek zioen moduan, borondate politiko eta pedagogia kontutua da, basterik ez.

■ **Karmelet Elizaren Izagirre, Iñaki Elduainen Ugartemendia eta beste 31 herritarren sinadurak.**



## Ezenarro

SAN FRANTZISKO 26, Behea  
20400 TOLOSA  
Tel.: 943 11 85 36

ezenarrosl@hotmail.com

GARMENDIA OTAOLA 3, Behea  
20200 BEASAIN  
Tel.: 943 08 42 02

PVC • ZUBI TERMIKOAREN HAUSTURA • AROZTEGI MISTOA • POLIURETANO • BARANDAK • HORMA-ARMAIRUAK



Maider Agirre, Aratz Alkorta, Urko Arin eta Patxi Altuna txirrindu probaren aurkezpen ekitaldian, atzo. A. IMAZ

## 150 txirrindulari inguru espero dituzte Villabona-Zizurkil VIII. Sari Nagusian

Txirrindulari lasterketa 09:30ean hasiko da, etzi; antolatzaileek 13:15ak inguruan amaitzea aurreikusten dute

**Asier Imaiz** Amasa-Villabona

Azken urteetako parte hartzerik handiena espero dute aurtengo Villabona-Zizurkil VIII. Sari Nagusian. Antolatzaileek, txirrindularien erantzunaren tamainakoa izatea nahi dute ikusleena. Horregatik, eskualdeko herritarrek Villabona eta Zizurkil artean jokatu den proba goni-bidatu dituzte, etzi, hilaren 17an.

Aurkezpen ekitaldia atzo egin zuten Amasa-Villabonako udal-txean, eta bertan azaldu zutenaren arabera, txirrindulari lasterketa 09:30ean hasiko da, eta 13:15ak inguruan amaitzea aurreikusten dute. Goizeko lehen orduan kadeteak irten dira, eta ondoren, elite eta junior mailako txanda izango da.

Aratz Alkorta Zizurkilgo Kirol

zinegotzia, Urko Arin, Amasa-Villabonako Kirol zinegotzia, Patxi Altuna antolatzaile taldeko kidea eta Maider Agirre Zizurkilgo teknikaria egon ziren VIII. Sari Nagusiaren aurkezpen ekitaldian. Guztiek igandeko proba berezia izango dela aipatu zuten. Arinen esanetan, Gipuzkoan ez dago horrelako beste probarik: «Bakarra da, eta horregatik da berezia. Villabona-Zizurkilgo txirrindulari proba hau, Espainiako Kopan sartuta dago, eta sailkapen horretarako baliagarria da». Zizurkilgo Kirol zinegotziak bere aldetik, bi udalen artean antolatzen den proba dela aipatu zuten, eta urtero helmuga txandatu egiten dela gaineratu zuten; iaz Villabonan amaitu zenez, aurten helmuga Zizurkilengo egongo da.

Irteera ordua 09:30ean bada ere, izen emateko aukera 08:00etan zabalduko dute, Villabonako Irrintzi Txirrindulari Elkartearen. Patxi Altunaren esanetan, aurten 140-150 txirrindulari izatea espero dute, horien artean, Portugaldik etorriko den talde bat. Ibilbideari dagokionez, Zizur-

### ↓ Villabona-Zizurkil VIII. Sari Nagusia

#### EKAINAK 17, ETZI

- **Irteera ordua:** 09:30ean kadeteak; 11:00ak aldera elite mailakoak; eta 11:27an juniorrak.
- **Nondik nora:** Zizurkilgo herrigunetik Zizurkilgo Pasusera.
- **Ezaugarriak:** Nesken Espainiako Koparako baliagarria.
- **Mailak:** Kadeteak, juniorrak eta eliteak.
- **Ibilbidea edo zirkuitua:** Zizurkil, Asteasu, Zizurkil Goia, Adunako bidegurutzera, Villabona eta Zizurkil.

kil eta Villabonako arteko zirkuitua izango da. Bertan, txirrindulariek hainbat itzuli eman behar dituzte, mailaren arabera. Berrikuntzen artean, sariak aipatu dituzte antolatzaileek. Zizurkilgo Maria Altuna artistak egin ditu irabazleek jasoko dituzten oroigarriak, horrez gain, Altunak Sari Nagusiaren logoa egin du.

## Irudia > Amasa-Villabona



## AGUR ZAPOREKO JAIA

Billabona Futbol Kirol Elkartearen denboraldi amaierako festa bihar izango da. Egun guztiko jai goizean hasiko da, haurrentzako jolasekin. Bazkariaren ostean, taldea utziko duten jokalariei omenaldia egingo zaie, hau da, Kepa, Urtzi, Beñat, Adrian, Abdessamad, Jokin, Gorka, Egoitz eta Jon Anderri. HITZA

## → Laburrak

### Herriraren zozketako saria Asteasura joan da

**ZIZURKIL** > Herrirak antolatutako Elkartasun zozketaren irabazlea Jose Martin Legarra asteasuarra izan da. Zozketa egin eta hilabeteko epean, Iriarte Jatetxean agertu zen Elkartasun zozketaren irabazlea, zenbaki sariduna eskuan zuela. Txartel honengatik, Jose Martin Legarrak gurutzte puntuan egindako eskulana eramango du etxera, bere marko eta guzti. Herriratik zozketan parte hartu duten guztiei eskerrak eman nahi izan dizkie.

### San Joanen inguruan dantzan eta kantuan

**ANOETA** > Dantza taldeak San Joan zortziko dantza entsegu irekiak antolatu ditu, San Joan bezperako festan suaren inguruan dantzatzeko. Entseguak ekainaren 18an eta 20an izango dira, Mikelasagasti auditorioan, 19:00etan. Dantza taldeak animatu nahi ditu herritarrek bertan parte hartzea. Bestalde, herritar talde batek San Joan kanten entsegu antolatu du ekainaren 21ean, 19:30ean, Mikelasagastin. Entsegu irekia da, eta herritar orok har dezake parte, ume, gazte nahiz heldu.

### Gipuzkoako giza proben txapelketan, Zizurkil

**ZIZURKIL** > Urretxun hilaren 17an, Gipuzkoako Taldekako Giza Proba Txapelketaren lehen kanporaketa jokatu da, 12:30ean. Hiru taldek hartuko dute parte eta bertan egongo da Zizurkil. Lehen bi sailkatuek finalerako txartela lortuko dute, eta hirugarrenak, bigarren kanporaketa jokatu du. Lehia hau Villabonan jokatu da, uztailearen 31n.

### Barrikote afaria eta kontzertua, gaur

**IRURA** > Zahar Etxean jai antolatu dute gaurko. Alde batetik, barrikote afaria egingo dute, eta ondoren, kontzertu batetaz gozatzeko aukera egongo da bertan. Barrikote afaria 21:00etan hasiko da, eta The Boogalordstan taldearen kontzertua 23:00etan. Iruran, beraz, Funky, Blues eta Boogaloo eritimoaz gozatzeko aukera egongo da gaur.

### 'Sua' filmari buruzko argazki erakusketa

**TOLOSA** > Sua filmaren inguruko argazki erakusketa Tolosako kultur etxean jarri dute Eneko Aritzaren Lagunak kultur elkar-teko kideek. Bertan egongo da hilaren 29ra arte, 11:00etatik 13:00etara, eta 18:00etatik 21:00etara.

Uda honetan **zatoz**  
**HITZAren** itzalera

Harpidedunen artean  
Gipuzkoako Surf Federazioaren  
**surf taula**  
zozkatuko dugu

Egin harpidedun  
Ekainaren 4tik Uztailaren 27ra  
eta jaso eguzkitako  
hau opari!

Harremanetarako:  
**902-82 02 01**  
harpidetza@hitza.info





Aljeriako Tindouf hiriaren aldamenean dauden errefuxiatuen kanpalekuetako ikastetxe batean, saharar haurrak. HITZA

## 22 neska-mutil saharar etorriko dira udan, Tolosaldera eta Leitzaldera

Ekainaren amaieran iritsiko dira, eta bi hilabetez izango dituzte euren etxeetan familia hartzaileak

### Iñigo Terradillos

Urduritasuna nabariko da dagoneko bi aldeetan, bai opor bereziak igarotzera datozen gaztetxoengan, bai eta haur hauek euren etxeetan hartuko dituzten familiengan ere. Izan ere, hamar egunen buruan iritsiko dira sahararrrak gurera. Ekainaren 25 eta 26rako dago aurreikusita 20 neska-mutil Tolosaldera ailegatzea. Hilaren amaierarako ere espero dituzte bi neska biki Leitzan.

Aurten hiru familia hartzaile berrik parte hartuko dute Tolosaldeko udalek eta Tolosaldea Sahararekin elkarrekin kudeatzen duten Oporrak Bakean programan. 7 eta 12 urte bitarteko gazteak dira Aljeriako Tindouf herriaren ondoan kokaturiko errefuxiatuen kanpalekuetatik uda berezia igarotzera irteten direnak. Tolosaldera datozenen kasuan, 20 neska-mutiletatik 4 estreinakoz datozenak dira, eta gai-

nontzekoak errepikatzaileak, hau da, aurreko urteetan egonak dira.

Tolosara 10 haur etorriko dira, Villabonara 5, Ibarrara 2 eta Alegiara, Altzora eta Anoetara, bana. Bi hilabetez izango dira eskualdean, euren familia hartzaileekin, beraz, abuztuaren bukaera aldera hemengo familiei agur esan, eta kanpalekuetara itzuliko dira.

### Lehen egitekoa: osasuna

2000. urtetik dago martxan Tolosaldean Oporrak Bakean programa. Ana Trapero ekimeneko arduradunak azaltzen duenez, «helburu orokorra bi hilabetez bada ere, haurrak errefuxiatuen kanpalekuetatik ateratzea da eta bide batez desertuan udako bi hilabete horietan pairatzen den tenperatura altuetatik babestea. Gainera, haurren osasuna eta elikadura ere zaintzen dugu». Lehen asteetako egitekoa medikuarerena joatea izaten da, azterketak gauzatzen zaizkie eta oinarriko arazoak konpontzeko bidean jarri. «Sendagileek eta erizainek egiten duten lana eskertu beharra dugu, asko laguntzen baitigute urtero-urtero». Bestalde elikadura gabezien ondorioz

sortutako kalteei ere aurre egiten zaie.

Era berean, sahararrek pairatzen duten egoera ezagutaraztea ere badu helburu Oporrak Bakean ekimenak. Hala, gaztetxoaren bitartez sahararrek zein egoeratan dauden eta Marokorekin duten gatazka bertatik bertara ezagutzen dute familiek. Trapero adierazten duenez, «bi herrien arteko kultur trukaketa ematen da, eta erlazio estua sortzen da, horregatik, askotan, familia hartzaileak haurren sendia ezagutzera joan nahi izaten dute kanpalekuetara, eta horrela euren begiekin ikusten dute sahararren eguneroko latza».

### Jardueraz beteriko uda

Bi begirale dituzte Tolosaldeko neska-mutikoek euren zaintzaz eta ekitaldiak antolatzeaz arduratzen direnak. Ana Trapero da begiraleetako bat, eta, bestea, saharar bat. Donostiako Aquariumera eta Igeldora, Txiki Parkera edota herrietako jaietara joango dira. «Ekimenean parte hartzen duten herrietan ekintzak burutzen saiatzen gara, esaterako, festetan parte hartuz».

Halaber, ongi etorri eta agur festak ere izango dituzte haurrek,

eta mendira edota itsasora joango dira eta kanpalekuetan egin ezin ditzaizkaten beste hamaika jarduerak ere izango dituzte euren Tolosaldeko familiekin, uda ahazteazina igaroz.

### Leitzaldean, bi neskato

Nafarroaren kasuan, Ana Gubernuz Kanpoko Erakundeak kudeatzen du haur sahararren udako egonaldia. Erakunde honekin elkarlanean aritzen da Leitzako

### Osasuna eta elikadura zaintzea eta sahararren egoera ezagutaraztea du helburu ekimenak

Saharar Herriarekin Elkartasun taldea. Tolosaldean udalek ordaintzen dute haurren bidaiaren eta begiraleen gastua. Leitzan, ordea, ez dute begiralerik, eta elkarrekin da bidaiari ordaintzen duena. Hori bai, Leitzako udaletxetik diru laguntza jasotzen dute.

Lehenengoz kanpalekuetatik irtengo diren bi neska biki iritsiko dira bertara hilabete honen amaieran. Errepikatzaileak dira egonaldiaz arduratu, eta eurekin batera opor politak igaroko dituzten bi familiak.

## → Laburrak

### Isidro Larrañagaren diskoaren aurkezpena

**TOLOSA** ▶ Isidro Larrañaga akordeoi jotzaileak *Hauspoak gidatutako bizitza* bere laugarren diskoaren aurkezpena egingo du gaur. Trianguloa plaza izango da, 17:00etan, eta bertan izango dira diskoan parte hartu duten bere ikasle ohiak. Aurkezpenarekin batera, diskoa erosteko aukera izango da.

### Hainbat kirolari goi tentsioko linearen aurka

**LEITZA** ▶ Goi tentsioko linearen aurka egin dute kirolari nafar askok, artean, Leitzako Abel Barriola eta Oinatz Bengoetxea pilotariek. Linea hori jarri asmo duten herrietako kirolariak dira, hain zuzen ere, aurkako jarrera azaldu dutenak. Eurekin batera, proiektuak ukitzen dituen 208 herrietako alkateen ordezkaritza ere izan zen herenegun egin zuten agerraldian. Proiektuak ingurumenari, ikuspegiei eta pertsoneri eragingo diela salatu dute, eta baita Yolanda Barcina Nafarroako lehendakariak ez duela beraiekin bildu nahi ere.

### Mosaiko erraldoian parte hartzeko gonbidapena

**IBARRA** ▶ Igandean Donostiako Saguesen erraustegiaren aurkako mosaiko erraldoia egingo dute, Gipuzkoa Zero Zaborrek antolatuta. Bada, Ibarrako Udalak ekimenarekin bat eginez, ibartarrak animatu ditu parte hartzera.

### Udaleku irekietan izen emateko aukera

**ARESO** ▶ Uztailaren 9tik abuztuaren 10era, 11:00etatik 13:00etara, udaleko irekiak egingo dituzte Areson. Izen ematea *kirolmank@gmail.com* helbidean edo 948 60 45 45 zenbakian egin ahalko da.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**



GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	21º
HOTZENA	14º

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitzalde:** 687 410 118. leitzalde@hitza.info

**Tolosa Herria  
Hedabideak**  
**SM-ko kideak:**

**BERTAKO**  
HEDABIDEAK



**Galtzaundi**  
euskara  
taldea



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k**  
Bai  
Euskarari



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altoz, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Farmaziak**

**GAUR**

- **Tolosa.** Bronte, C. I. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112.

**BIHAR**

- **Ibarra.** L. Lejeune, Euskal Herria, 3. Telefonoa: 943 67 09 15.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112.

**ETZI**

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amaro zuzoa, 9. Telefonoa: 943 67 51 18.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112.

**ETZIDAMU**

- **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. Telefonoa: 943 67 38 49.
- **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

**Irudia** Lizartza



**UDALAREKIN  
AKORDIOA  
SINATUTA**

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariak akordioa sinatu du Lizartzako Udalarekin, eskualdeko euskarazko prentsa sustatu asmoz. Akordioak urtebeteko iraupena du, eta oso berri ona da, azken urteetan udalak eta egunkariak ez baitute akordiorik izan. Irudian Lizartzako alkatea, Aitor Agirre, eta HITZAko kudeatzailea, Jon Mujika, akordioa sinatzen. I. TERRADILLOS

**Agenda**

**DEIALDIK**

- **Ibarra.** Kirol elkarteak lehenengo sei hilabetekoari dagokion batzarra egingo du, gaur. Lehen deialdia 20:30ean izango da, eta bigarrena 21:00etan.
- **Tolosa.** Larramendiko auzoko lurperatzearen inguruko herri kontsulta, bihar.
- **Tolosa.** Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde plataformaren informazio batzarra bihar, musika eskolan, 12:00etan.
- **Bidegoian.** Autokonpostajearen inguruko ikastaroa bihar, pilotalekuan, 10:00etatik aurrera.

**JAIK**

- **Ibarra.** Gazte Festak: gaur 19:00etan txupinazoa eta Lizarrako joaldunak, 19:30ean sargardo dastatzea eta paella jatea, 23:00etan izate eta Su Ta Gar, eta ondoren, karaokea gaztetxean; bihar, 10:30ean gazte-entzako 3x3 futbol txapelketa, 14:00etan gazte bazkaria, 16:30ean Eriz magoa, ondoren txokolate eta tortilla jatea, eta

18:00etan Alurren emanaldia, plazan; igandean, *Conquistour* telebista saioko probak.

- **Tolosa.** San Joan jaiak giro-tzen hasteko ekitaldiak asteburuan. Bihar azoka berezia, goizean. Bihar Musika Tresnen Topaketa egun guztian zehar; kuadrillen arteko XIV. Street Basket Txapelketa, San Frantzisko pasealekuan, egun guztian zehar; igeriketa txapelketa, Usabalen, 10:00etatik aurrera; eskubaloiko txapelketa, Usabalen, 18:00etan; sargardo lehia-keta, 19:00etan, berdura plazan; eta Hodeiertzen kontzertua, Jesuitinetan, 20:00etan. Igandean xake txapelketa 10:00etan, kultur etxean; Euskal Herriko Bakarkako Segaligaxka, 11:00etatik aurrera, lurre-amendiko zelaian; futboleko elkartasun txapelketa, 10:00etan, Usabalen; eta Hodei Truken kontzertua, 19:00etan, Berdura plazan.

**MUSIKA**

- **Villabona.** Lain taldea lagun-

tzeo kontzertuak bihar, Errebotel plazan, 18:00etan. Lainez gain, Ze esatek, Lauroba, Hesian eta Gugaz ariko dira.

**KIROLAK**

- **Villabona.** Behar Zana txapelketako partidak, gaur, pilotalekuan, 19:00etatik aurrera.
- **Zizurkil.** Trikuharrien ibilbidea, igandean. Ibilbide luzekoak 08:30ean irtengo dira Pedro Mari Otaño plazatik, eta motzekoak, 11:30ean, leku beretik.
- **Zizurkil.** Neska Txirindularien VIII. Sari Nagusia, igandean, 09:30etik aurrera.
- **Abaltzisketa.** III. Txindoki Bertikala igandean, 10:00etan.
- **Bedaio.** VI. Mendi Martxa eta V. BTT Bizikleta Ibilaldia, igandean. Oinezko ibilaldian parte hartzen dutenek 07:30ean aterako dira, eta bizikletako proba egiten dutenek, 08:30ean. Pilotalekutik aterako dira biak.

**ARTE ESZENIKOAK**

- **Tolosa.** Kultur eteko antzerki

taldearen ikasturte amaierako obra, gaur, 20:30ean, Leidorren. *Lysistrata* obra klasikoa antzertuko dute.

- **Tolosa.** Pantzart antzerki taldearen *Boli biliboli*, gaur, 18:30ean, Topic zentzuan.
- **Tolosa.** Leo Harlmenen baka-rrizketa saioa bihar, 19:30ean eta 22:00etan. Lehen saioko sarrerak agortu dira jada.
- **Tolosa.** Kultur etxeko dantza tailerreetan emanaldia igandean, 12:00etan, Leidor aretoan. Sarrerak agortu dira jada.

**ZINEMA**

- **Tolosaldea.** *Gazta zati bat* filma ikusi ahal izango da ikaztegi-gietan, Zizurkilen eta Anoetan, gaur. Ikaztegi-gietan 21:30ean eskainiko dute udaletxean; Zizurkilen Atxulondon 22:00etan; eta Anoetan Mikelasagastin 22:00etan.
- **Tolosa.** *Blancanieves y la leyenda del cazador* haurrentzako filma igandean, 17:00etan eta 19:30ean, eta astelehenean, ikuslearen eguna, 20:30ean.

Larramendi Auzoko Urbanizazioa  
**5 minutu auzo bat eraikitzeko**  
Parte hartu!

Ekainaren 16an, auzo kontsulta • Eman botoa!

